

Irune Gurtubairen *Limbo* filma Donostiako Zinemaldian

Urri lehenengoaren 19 eta 22aren bitartean egon zan ikusgai Ben Sharrock-ek zuzendu eta Irune Gurtubaik ekoiztutako *Limbo* filma. Sei emonaldi izan ziran eta sarrera guztiak saldu ziran. Kritikak be onak izan dirala adierazo deutso Igorreko produktoreak BEGITURI. Datorren urteko udabarrian zine aretoetan egotea espero dau. Sharrock eta Gurtubairen aurreko pelikulea be, Arratian grabautako *Pikadero*, hain zuzen, Donostiako Zinemaldian estrenau zan 2015ean. **13. orrialdea**



Bizkaiko Bertsolari Txapelketea 2021era atzeratu dabe

12. orrialdea

Deiene Gurtubaik irabazi dau bigarrenenez BEGITUREN Oporretako Argazki Lehiaketeta

Epaimahaikoen arabera, *Iraila Gorbeien* argazkia, akatsik bakoa, aproposa, gaiari ondo lotua eta kalidade handikoa da, eta horregaitik emon deusie saria.

Argazki polit asko heldu dira, baina kalidade aldetik, konposizinoa, gaiagaz loturea... hau perfektua da" dino Ibone Bengoetxea epaimahaikoak. Epaimahaikoai gehien gustau jakiezan argazkiak, esanguratsuenak dirala dinoe, "jentea agertzen dan argazkiak, eta oindino gehiago aurten, beharizana geunkalako" dino Aranzazu Matak. Aitatu be gura dau finalisten artean egondako San Vicente de la Barqueran ateratakoa, "bizi dogun momentuaren adierazgarria" dalako.

Aurten, 67 argazki baldiu ditue irakurleak lehiaketan parte hartzeako. Aurreko urteetan baino gitxiago eta etxetik hurragoko paisajeak erakusten dituenak. Deiene Gurtubaik BEGITUREN antolatutako hainbat argazki lehiaketa irabazi ditu, oporretako atzen biak, tartean. **8. eta 9. orrialdeak**



ARRATIA

GAS faltsuaren biktima diran herritarrak babestuko ditue udalak

Arratiako Mobimentu Feministek mozino bat aurkeztu dau Arratiako udaletan. Arantzazun, Areatzan, Diman, Igorren eta Lemoan, aho batez onartu da. Bedian oingo hilean bozkatuko dabe eta Artean eta Zeanurin Mobimentu Feministek aurkeztutakoa eta EAJ-PNVk aurkeztutakoa, biak, onartu ziran. Holan, udalak konpromisoa hartzean dabe "prozesu judizialetan sartuta dagozan herritarrak eta adin txikikoak babestera eta eskura dituen baliabideak eskaintzera".

Hilaren 23an, konzentrazinoa egongo da Igorren Irune Costumeroen alabearen alde. **7. orrialdea**

Langabeziak gora egin dau martitik abuztura bitartean

Igoerea, Bizkaian eta Erkidegoan baino zerbaist apalagoa izan da Arratian. Lanbidek urri lehenengoan argitaratutako datuen arabera, Arratian abuztuan martian baino 120 langabetu gehiago dagoz; igoerea %1,4koa izanik. **7. orrialdea**



ARRATIA

Bitxigile bigaz berbetan

Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoen alkartearen merkaduetan izaten da Delia Luiña bitxigile artisaua. Oban dauka tailerra eta zuzenean be saltzean ditu pieza bakarrak diran bere bitxiak. Arteako merkaduan beste bitxigile bat egon zan, Iria Mitxelena. Honek Artean dauka tailerra. Oin urtebete etorri ziran biak uritik mendi igurura. **5. orrialdea**



ZEURE BERBEA

Ez argaltzearen 9 errazoi

1. Dieta bat jarraitzean, ez dozuzalako zure elikadura ohiturak aldatzen edota moldatzen. Epe luzeko elikadura ohitura osasuntsuak sustatzean edota momentu puntual baterako pisu galeran oinarritzen da zure helburua?
2. Elikagai talde konkretu batzuk murrizten dozuzalako. Normalean gantzak eta karbohidratoak.
3. Ez dozulako behar adina ur edaten. Ura izango da egunean zeharreko edari nagusia.
4. Kirola praktikan dozulako, bai. Baina zer gertatzen da ariketa fisiko edota elikadura ohiturakaz? Konpensazioaren errealidade gordina.
5. Atsedean falta dozulako. Zaindu norberaren autozaintza edota atsedeen-zikloa.

6. Ez dozulako kontuan hartzean elikagai bakoxtaren errazioak. Elikagai bakoxtaren kontsumo kantidadeak zein kontsumo maiztasunak argi eukitea ezinbestekoa izango da.
7. Gaur egun daroagun bizitza estiloa dala eta; bai estresak, bai ansiedadeak, bai ustezko denpora falteak, piloto automatikoa biztuta eroatera bultzatzen gaitu. Egoera bakoxtaz ohartaraztea ezinbestekoa izango da gure elikadura ohiturak hobetu gura badoguz.
8. Ez dozuzalako behar beste fruta eta barazki kontsumiduten. Bete platerak kolorez, zenbat eta gehiago, hobeto.
9. Elikadura aspergarri eta monotonoa jarraitzen dozulako. Baleiteke zure dietan funtsezkoak diran elikagai batzuen faltea izatea; beraz atera barruan dakuzun sukaldari hori eta probatu errezeta barriak.

NAROA ESPARZA ORTUZAR

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidun makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo beginu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Iko



Iko latinezko "figus" izenetik hartutako berba bat da. Ikondoaren frutua da ikoa. Baina gure artean arboleari be iko esaten jako. Ikoa frutu gozoa izaten da (ikóá, ahoskatuta), eta jateko azala kendu behar jako. Batuan, piku da. Fruta hau, freskoan jateaz gainera, sikatuta be jaten dogu, eta iko-pasa izena hartzean dau (ikópasea, ahoskatuta). Ikoak urrietan helduten dira, sasoi honetan hain zuzen be. Iko-pasak osterá, lehenagoko tradizioaren arabera, Gabonetan jaten ziran. Adibidea: "Bero honeekaz, gesu baten ikoak jateko moduan egongo dira, ezta?".

ERETXIA

Beharrezkoan ezbeharrak

Oindino oroitzen naz, mundua, gelditu barik bueltaka, karrusel matxuratu bat izango balitz legez, ebilenean. Danak korrika, presaka, albokoari segundu ziztrin bat itxi barik. Zaratea errege zanean, estresa garunetan bor-borka ibiltzen zanean, lehertu gura eta ezinean; eta, hori dana albo baten itxita, eskuko frenoá bota eta kaleetako isiltasunari atea zabaldu geuntsanean. Irribarreak estaliz, oritzapenen fabriketan persianeá botaz, garagardao bakoxta latetan sartuz. Itsasoari kateak jarri eta besarkatzea debekatuz.

Platonen kobazuloaren alegoria Teleberri bakoxtean. Zerua urdin, kontaminaziorik ez; informazioa koilarakadaka eta bakoxtadearen zelda gure tenpluan. Ukimena plazer huts bat izatera pasau zan.

Ordurarte arraro egiten jakuzan berbak egunerokora bihurtu ziran: mosukoa, pandemia, COVID-19, ABLEE (ERTEa), normaltasun barria, beharrezko personak edo esentzialak eta abar. Koronabirusari buruz berba egiteko edozein tabernatan, supermerkaduko ilaran edo uleapaindegian egin daikegu, ni ez naz astuna izango eta gaixotasuna albo baten itxita harago joan gura dot; gaurkoan, beharrezko diran eta izan ziran langile horreen inguruan hausnartzera nator. "Esentzial" adjektiboa jarri jakien horreek, eta gaia oindino gehiago mugatzeko, txalotuak izan ez diran langileen inguruan berba egin gura dot.

Merezidutako txaloak jaso ebezan mediku, erizain eta abarrek, nire ustez kasu askotan nahiko hipokritak be, kontuan hartuta, osasunean murrizketak egitearen alde botoa emon ebenak zirala balkoi eta leihoetan gehien txalotzen ebenak, baina ez dot horretan sartu gura. Beste ikuspuntu batetik hartu gura dot, txalorik jaso ez eban garbitzaile horren ikuspuntutik. Arrisku berbera



IMANOL SALVADOR

Idazlea

pantailakaz. Egutero 500 persona desbardinaren aurrean egozan bildur eta onberatasunaren artean burrukan. Egutero batetik bestera distantziak mantenduten, produktuen manipulazio egokia eta segurtasun neurriak ikasiz. Eta bakea mantenduz jentearen urduritasunaren aurrean, nire ustez meritu handiena daukana.

Edo online denda handietako banatzaileak, etxez etxe euren osasuna arriskuan jartzen beharrezkoak ez ziran produktuak banatzeko, bezeroetan bildurra nabaritzen leprosoztat hartzean ebezenean.

Okinak, postariak, garraiolariak, farmaziak, elikagai enpresetak langileak eta beste hainbatek jarraitu behar izan dabe etenbarik beharrean, lista amaibakoa izan eitekean. Askok dinoe gizartea hobetu egin dala eta oin persona hobeak garala, ez dot pesimista izan gura, baina nire ustez bakoxtak bere buruan pentsetan jarraituten dau. Aurretik azaldutako langile askok eta askok jasan behar izan ditute eta mespretxu eta mehatxuak euren lana eta legea betetearren. Bildurra eta urduritasuna nahaste leherkor bat izan da persona askorentzat, txarrena da igesaldi balbula, beste norbaiten gainean zarama botatea dala uste dabenean. Azaldutako hau koronabirus barik be gertatzen da, askok uste dabelako euren frustrazio eta ezbeharrak beste norbaiten ordaindu behar dituala eta menpekotasun faltsu baten oinarrituta arpegira botaten deuse txarrikeria guztia, baina uste dot COVID-19 dalako honen sasoi honetan gehiago nabaritu dala.

Seguru asko lanean ibilitako langile gehienak ez dabe aitorpenik gura, eta beinke! ondo dago. Ha-ta guzti be, nire ustez, personaren lana goraitzea ez dago soberan, ondo egiten dabenean, eta irribarre bat baino gehiago sortuko leuke. Ez dago arazorik batena aitatzearen eta bestearen ez, baina hipokresia kutsu handi bat dago medikuari txalotzen urten eta garbitzaileari egutero on be ez esatean.

eukan eta ezezagutza oindino handiagoa, lana bikoiztu eutsien eta bizitzeko beharrezko eban soldatan ez zan holango biderketarik ageri. Orduak eta orduak etenbarik lanean eta inoren aitorpenik ez.

Supermerkaduetako langileak adibidez, lanaldi amaibakoak eukiezan eskularri, mosuko eta

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askitasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsinoá
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 ICORPE (Bizkaiá)
Tfno. 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Kili-Kili
Amepa eta Puzatutakoak
Lehendakoa Agirre 10 - ICORPE (Bizkaiá)
Tfno.: 94 673 43 81

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Galdar 666 58 20 06
Puzutxo polygona, 10 LEMOA - beeredotaki@gmail.com

LUMATUTEN



XABIER LAMIKIZ

Pandemiaren alde onak

Goiko izenburua idatzi aurretik buruan neukana hori zan, pandemiak zerbaist ona ekarri behar izan dauala eta merezidu ebala horretaz idazteak. Baina idazten hasi (idatzi bitartean pentsetea errazagoa egiten jata) eta ez dot gauza onik inon ikusten. Ez dot esango dana ilun ikusten dodanik be. Optimista hutsa naz. Ez naz gauza txarrak zerrendatzen hasiko. Hedabideak dira horretaz arduratzen diranak. Baina zer esan leike optimista batek egungo egoereaz? Egoereak hobera egingo dauala, beinke! Baina atzen hilabeteotan bizitakoaz esan daiteke ezer onik? Agian familian denpora gehiago pasetako aukerea izan dogula? Kasu batzuetan hala izango zan, baina beste batzuetan ziur nago ezetz. Gainera familian denpora gehiago paseteak askotan alkarregaz burrukan egiteko aukera gehiago emoten ditu. Agian pandemiari

alde ona aurkitzeko iraganeko pandemiari begiratu beharko geunskie, gauzak ikuspuntu zabalago batetik ikusteko. Adibide batzuk jatortaz gogora. 1347tik 1351ra Izurri Baltza: Europako populazioaren erdia hil zan, modu izugarrian hil be. 1596tik 1602ra Izurri Atlantiarra: Iberiar Peninsulan sekulako sarraskia eragin eban; Madrilgo populazioaren herena hil zan. 1918ko gripea: munduan 500 miloe persona infektatu eta ehuneko hamarra hil zan (bai, 50 miloe hildako). Baina, ez dakit, gagozana baino txarrago egon geintezkela esatea ez jata iruditzen oingo pandemiaren alde ona izan daitekenik. Gauzak beti izan daitezke txarragoak, beinke, baina baita hobekak be.

Pentsetan dot gauza onak norberak bilatu behar dituala. Agian azken aldian kirol gehiago egitea lortu dozu. Hobeto jaten zabiz eta garagardao gitxiago edaten. Pandemiaren atxakiaz aspaldian kontaktua galduta zeunkan lagunagaz harremana berreskuratu dozu. Betidanik gura izan dozun baina irakurteko astirik ez zeunkan eleberriak irakurtzen zabiz. Agian, zer dakit nik...

ZERTZEAN



SAIOA LARREA

Dr



BEGI TXINDORRA

Txakur meheari arkakusoak dario eta Moriako errefujiadu eremuan lehendik be bizi-baldintzak ez baziran duinak, erre ostean, larrialdi egoerea gorriagoa da oindino be. Hori dala-eta, Zaporeak eta Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek "Larrialdi egoerari tamainako erantzuna" izenpean, jateko bilketea antolatu eben urri lehenengoaren 25 eta 26an. Arratitak hiru furgonetakada jateko bialdu zan.

Mundubat GKEak antolatuta eta Kuluxka Antzerkia, Artea Sarea eta OEE Bizkaiaren laguntzeagaz, andra errefujiadu eta migratzaileen ahalduzko antzerki tailerraren *Los caminos de la vida* antzezlanaz ikusi ahal izan zan Arteako frontoian urri lehenengoaren 26an. Aurrez aurre ikusi ahal izan eban publikoak, baina grabau be egin zan, gero sare sozialetan zabalduteko.

Aurrez dik ez dago jakiterik zelango paisajeak erakutsiko deuskuezan bizitzaren bideak. Euretatik ibiltea sano gogorra izan daiteke batzuetan; egoera larriak larriagotu daitezke, eza be erre. Eta tamainuko erantzuna topatzea baino ez da geratzen orduan. Aurrera egiteko.



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odonatologia
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zerbaita 101
R.F.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPERAK
Elizkole, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRIE (Bizkaia)
Tel. 94 621 54 62 - 808 854 018

Sabandakia Agorri 11
Erroitz
Agorriaren gaurtik aurrera.

ARRATIA

Arratiako bitxigileak hasi dira merkaduetara bueltetan

Sasoi baten artistak urietako auzune bitxietan bizi baziran be, aspaldi honetan joerea naturara jotea da; naturak eskaintzen deuselako inspirazioa eta beste bizimodu bat. Oin urtebete, bitxigile bi etorri ziran Arratiara, Delia Luiña Dimara eta Iliia Mitxelena Arteara. Zidarra landuten dabe biak eta batez be enkarguz egiten dabe behar, baina ez holan bakarrik.

Erredakzioa

Iliak amagaz konpartiduten dauan dendea dauka Bilbon eta bertan saltzean ditu bitxiak, baina baita etxetik edo tailerretik zuzenean edo interneten bidez. Deliak be, internetez saltzean ditu baita Obako etxean daukan tailerrean be, publikoari zabalik dagoana. Igitiek egiten dituan azoketan izaten da Delia, eta Iliak urri lehenengoaren 19ko Arteako base-riko produktu eta produktu artisauen azokan euki ebazan bereak salgai.

Txikitatik gustau izan jakozala azokak dino Iliak. Gurasoakaz joaten zan umetan, eta gero, tailerra zabaldu ebanean, 2007an, ipini eban lehenengoz bere bitxiak saltzeako salmahaia. Martiaren 7an, andren nazioarteko egunaren inguruko andren azokan egon zan azkenengoz itxialdiaren aurretik. Arteako azokan berreskuratu dau jenteagazko kontaktu zuzena.

Bitxigileak igarri dabe COVID-19a dala eta hartutako neurrien eragina. "Koronabirusak eragina izan dau merkadu asko ezin izan diralako egin. Lau edo bost merkadu geratu ziran bertan behera. Etxean tailer-dendea daukat eta jenteak bisitatu lei. Ikastaroak emon gura dodaz bertan. Koronabirusa dala-eta, ezin izan dot ikastaroetarako zabaldu oindino, baina horretan nabil" dino Delia Obakoak. Iliak be, ikastaroak eta beste proiektu batzuk eten behar izan ditu.

Artista edo-eta artisauen alabak

Valladolid-ekoa da Delia Luiña, ilustratzaile baten alabea. "Teknika plastiko irakaslea da ama eta liburuak be ilustratzen ditu. Hortik jatorria alde artistikoa". Palencian bitxigintzako goi mailako gradua egin ostean, hainbat material eta teknika ikastaroak egin ebazan; zeramika, narrua, beira, portugaldar filigrana eta bereber filigrana, beste batzuen artean, eta material eta teknika horreek be erabilten ditu bitxiak egiteko.

Pieza bakarrak baino ez ditu egiten. "Zidarra eskuz landuten dot, ez dot molderik egiten eta pieza guztiak pieza bakarrak dira" azaldu deutso BEGITURI eta formazioa dabenen lan artisauaren balioa alda-

rikatzen dau. "Ez dau edozeinek egiten, teknika eta dedikazioa daukanak baino. Intrusismo handia dago eta bitxi edozeri deitzen jako. Balioa emon behar jako eskuz eta metalakaz egiten danari. Formazioa behar da. Formazioa daukan jenteak baloretan dau. Arazoa da formazio artistikoa galtzean doala".

Iliia Mitxelena Erandiokoa da, narrua landuten dauan artisaubaten alabea. Arte Ederretako lehen zikloa egin ostean, bitxigintza eskola baten ikasi eban, eta material eta teknika ikastaroak egin ebazan gero. Zidarrak gainera, material asko erabilten ditu bitxiak egiteko. "Bitxiak, askotan, prozesu personalen sinbolo dira. Jenteak bitxiak erosten daz ezkontzetan, amodioa sinbolizetako. Edo jaiotzak, banaketak, heriotzak... etxe edo lan baten aldatzea..." Bezeroak ekarritako prozesu eta mugari horreekaz lotutako materialak be gehitzen deusaz bitxiak,

alkarriketen bidez, diseinutako sano bitxi personalak egiteko.

Ados dago Iliia Delia. Bere ustez "artisautza berbea erabilten da beste gauza batzuei balorea emoteko. Patata prijidu "artisautza", berbarako. Eta horrek balorea kentzean deutso gure lanari. Eta gainera, artisautza moduan ulertzen da esplotazio artistautza. Gure lana, Indian eta lan baldintza txarretan egindako piezen prezioan saltzea gura dabe. Eta hori ez da posible."

Pieza personal eta bakarrak egin arren, serieak be egiten ditu Iliak, baita moldeak erabili be. "Adibidez, uhal belarri batzuk. Amak narrua landuten dau eta uhalentzako belarriak dira. Prototipoa egin, fundizina bialdu, eta gero nik belarriak zidar bainua emoten deutset". Eguzkiloreak eta serietako beste pieza batzuk be egin ditu moldeetan, "niretzat batzuetan zentzua dauka moldeetan egitea" dino.



Delia Luiña.



Iliia Mitxelena.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Hezkuntzako langileen grebak jarraipen desbardina euki eban eremuko eskoletan

Urri lehenengoaren 15ean, EAEko Hezkuntzako beharginak, ELA, LAB, Steilas, CCOO eta UGT sindikatuak deituta, greba egin eban "hezkuntza itzulera segurua eta adostua" aldarrikatzeko.

Sindikatuaren arabera, Erkidegoan, greba egin eukien langileen %70ek egin eban; Eusko Jaurlaritzaren arabera %42 inguruk.



Erredakzioa

Arratia eta Zeberioko eskoletan, aldea egon zan eskolen artean, jarraipenari jagokonean; Areatzako eskolako %38 eta Dima eta Zeberioko %100 bitartean. Urri bigarrenaren 2an, hezkuntza arloko sindikatuak amnistiazioa deitu ditue Bilbo, Gasteiz eta Donostian.

Areatzako eskolan irakasleen %38k egin eban greba eta janlekuko %40k. Porzentajea erdira heldu zan Igorreko Ignazio Zubizarreta eskolan eta Arratia Institutuan; bietan, %50ek egin eban greba. Lemoan, porzentajeetan, jarraipena apurtxo bat handiagoa izan zan, egin eukien langileen %60 inguruk egin eban greba eta; DBHko irakasle guztiak eta LH eta HHko %47k, hain zuzen be. Arteako eskolan, %73 inguruk eta Zeanurikoan irakasleen %80k, janlekuko beharginak, barriz, ez eban grebarik egin. Diman, irakasle bat izan ezik beste guztiak. Zuzendaritzatik danak egiteko asmoa eukiela azaldu deutso BEGITURI, baina batek behar egin izan

eban, gitxieneko zerbitzuak diralata. Zeberioko eskolan, irakasle guztiak egin ebela greba azaldu dabe eskolako zuzendaritzatik.

Material eta irakasle faltea

Egoerara aurretiaz ez prestatzea leporatzen deutse irakasleak Hezkuntza Sailari. Ikasturtea hasi dala aurreko lana egin barik. "Zentro bakotzak egin behar dau gertakizun plana eta horretarako dokumentuak urri lehenengoan ailegau jakuz" azaldu deutse BEGITURI Dimako eskolatik.

Maskara, gel hidroalkoholiko eta termometro faltaz be kejetan dira Igorren eta Diman. Eskola batzuetan, neurri guztiak beteteko ez daukie irakasle nahikorik eta Hezkuntzak ez dau barririk bialdu araututakoa bete ahal izateko. Janleketan oindino gatxagoa da neurriok betetea, ezinezkoa ez danan.

Protokoloan be akatsak egon dirala dino. Oin konponduta badago be, hasikeran, positiboen barri emon eta protokoloa martan ipinteko telefonoa berbarako, txarto egoan.

ARRATIA

Aurreko astean lan istripuz hildakoa gogoratzeko elkarretaratzea egin zan

Erredakzioa

"Aski da! Lan istripu gehiagorik ez" aldarrikatzen eban pankartearen atzean 70 bat persona batu ziran urri lehenengoaren 18an, Artea Sarea errefujiaduen aldeko harre- ra plataformeak deituta omenaldi- toxa be izan zan konzentrazioan, Abdou Ndack-en heriotzea salatu eta familia eta lagunai solidarida- dea adierazoteko.

Aurreko astean hil zan, Ndack, 25 urteko gaztea, teiltatu batetik jausita, beharrea egoala. Behar- ginak Trapagarango Productos Tu- bulares enpresearen azpikontrata dan Igorreko Langoitia Estructuras Metalicas-en egiten eban lan. LAB sindikatuaren arabera, azpikontra- tazinoak, lan harremanak, prekari- zazioa eta lan araudiak, istripuen kausen artean dagoz.



Igorren egindako konzentrazioa.

Argazkia: Artea Sarea.

Antolatzaileak, gaztearen ame- tsa lana lortzea zala esan eben. Senegaletik bide luzea eginda,

hiru urte kostau jakon lana topa- tzea. Lana topau eta handik gitxi- ra istripuz hil zan.

ZEANURI

Sei autokarabanarentzako lekua prestatu dabe

Erredakzioa

Herriko aparkalekuko goiko al- dean, Igertualden, sei autokara- banarentzako lekua prestatu dau Udalak. Bertan, ur lohiak hutsi- tuteko lekua, argindarra eta ura

dagoz autokarabanetan doazenak erabilteko. Herrian, aparkalekutik hur, "komun publikoak, dendak, plaza, umeentzako jolas-parkea, bizikletak konponduteko gunea eta tabernak", besteak beste, to- pauko ditue.



LEMOA

Langabetu eta enpresen arteko bitartekaritza zerbitzua eskaintzen dau Lemoako Udalak

Erredakzioa

Lemoako Udala zerbitzuak mar- txan ipinten dabil; batzuk barriak dira eta beste batzuk lehendik baegozanak aldaketa batzukaz. Holan, Udal Liburutegia martxan da Kotxepin Kultur-gune barrian, eta lanerako bitartekari zerbitzua eta nagusien ariketa fisikoa sus- tatzeko tailerra be martxan dagoz.

Herrian dagozan langabetu eta enpresen arteko bitartekaritza zerbitzua lan bila edo langile bila dagozanak erabili leikie. Zerbitzu honen bitartez Udalak, lan bila dagozanen curriculumak, eska- tzen dabezan enpresen eskura ipiniko ditu. Parte hartzeako, curriculumak, NAren kopia eta lan-bizitza agiria eroan behar dira udaletxera.

Liburutegia Kotxepin Kultur- gunean

Liburutegia udaletxe ondotik, lehen Abadetxea izandako eta guztiz ba- rriztuta dagoan Kotxepin Kultur- gunea aldatu dabe. Kultur-gune barriak Kotxepin izena hartu dau, euskera eta kultura arloan lan handia egin eban Kotxepin Bengoetxearen omenez. Liburutegia, osasun neurri guztiakaz zabalduen dabe arrastiko ordutegian, astelehenetik barikura 16:30etik 19:30era. Liburuak maile- guan hartu eta itzultzeko baino ezin da erabili momentuz; hau da, ezin da bertan irakurri.

Parke osasungarria izenpean, ariketa fisikoa sustatzeko tailerrak be ipini ditu martxan Udalak Ibaizabal parkean. Persona nagusientzako dira eta goizeko 09:30ean izango dira urri bigarrenaren 1, 8, 15 eta 22an.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Eskola kirola hasteko baimena emon dau BFAk



Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiak Eskola Kirola abiatzeko baimena emon dau; hau da, umeak euren kirol- letan entrenetan hasi ahal dira. COVID-19a dala-eta, kirola es- kaintzen daben alkarteak neurri zorrotzak bete beharko ditue. Neurriok Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak adostu ditue.

Umeak talde egonkorretan entrenauko dira eta momentuz, ezingo dira lehiatu; ez dago au- rreikusita noz hasi ahal izango di- ran lehiatzen. Saioak ikusle barik izango dira eta ezin izango dabez aldagelak erabili. Entrenamen- tuaren ostean, erabilitako mate- rial guztia desinfektatu beharko dau jarduerak eskaintzen dauan klubak edo alkarteak. Talde guz- tiak COVID-19ari aurre egiteko protokoloa izan behar dabe, eta osasun arloko arduradun bat izentau protokoloa beteten dala

bermatzeko. Taldeko kideak eta familiak protokoloa onartzen da- bela dinoan akordioa sinatu be- harko dabe.

Bisitak be baimendu ditue zahar egoitzetan

Urri lehenengoaren 22an, Eusko Jaurlaritzak zahar etxeetarako pro- tokolo barria onartu eban, neurriak arinduz, egoiliarren "duintasuna" errespetetako. Atzenengo hilabe- teotan, bisitak eta egoitzatik urtetea sano murriztuta edo-eta galarazota euki dabe zahar etxeetan bizi di- ranak. Protokolo barriagaz, egoitzatik kanpo denpora luzeagoan egon daitezke eta gehiago urrundu ahal izango dira. Bisitai jagokienean, hu- rrekoak bakarrik bisitatu edo atera leikiez egoiliarak.

Gotzone Sagardui Osasun Sail- buruak azaldukoaren arabera, protokoloaren helburu dira zahar etxeetan bizi diranak "emozio- nalki zaintzea" eta "personearen duintasuna errespetetea".

ARRATIA

Ibilaldiak kolore desbardinetan egiteko aukerea

Erredakzioa

Udagoienean Gorbeia Turismo Jomugak jarraituko dau eskaini- tzen udako ibilaldiak. Udagoiena, basoak modu sakonagoan eta ez hain ezagunean gozatuteko urtesaso parebakoa dala eretxita, historia, ondarea, natura, artea, gastronomia, mitologia eta kul- tura buztartzen dituen ibilaldiak eskaintzen ditu.

Zeanuri eta Zeberio

Nabarmenezko ibilbideen ar- tean, Undurruga urtegitira itzulia eta Zeberioko altxorren ibilbidea dagoz. Undurruga urtegitira itzulia ibilbide lasaia da, Zeanuriko pla- zatik abiatuta, erraz egiten dana. Bisita gidatuak egiteko aukerea dago urri bigarrenaren 25ean.

Zeberioko altxorren bisita gidatua, Zeberioen ondarea bisitetan dauan kilometro inguruko ibilbide laburra da. Parte hartzeako aukerea egon- go da urri bigarrenaren 10ean.

Ibilbide honek egiteko edo Gorbeia Turismo Jomugak es- kaintzen dituan beste edozein ibilbidetan parte hartzeako izena emon daitezke gorbeiaeuska.com helbidean edo 94 612 26 95 telefonoan.

Herrian dauden langabetu eta enpresen arteko

BITARTEKARITZA ZERBITZUA

eskaintzen du Udalak.

Parte hartzeko dokumentu hauek ekarri udaletxera:

- NAren kopia
- Lan-bizitza agiria
- Curriculumak



ARRATIA

Arratiako Mobimentu Feministek udal eta herritarren konpromisoa eskatu dau GASaren kontrako burrukan

Gitxi batzuk ezetuten doguzan arren, asko dira Guraso Alienazio Sindrome (GAS) faltsuan oinarrituta, amai umeen kustodia kentzean deuseen kasuak. Arazoa mahai gainean ipini eta administrazioak bere ardura hartu dagian, Arratiako Mobimentu Feministek mozino bat aurkeztu dau Arratiako udaletan.

Erredakzioa

Arantzazun, Areatzan, Diman, Igorren eta Lemoan, aho batez onartu da mozinoa. Artean eta Zeanurin, EAJ-PNVk abstentzioa emon eta beste mozino bat aurkeztu eban. Mozino biak onartu ziran: Arratiako Mobimentu Feministek aurkeztutakoa eta jeltzaleena. Bedian ez dabe mozinoa bozkatu oindino. Urri bigarrenaren 23an, holango egoera sufriduten dauan Igorreko lagun bateri babes emoteko, "Iruneren alaba bere Igorreko etxera eta gure artera ointxe!" aldarriagaz konzentrazinora deitu dabe Arratiako Mobimentu Feministek eta Iruke Costumerok.

Mozinoan azaltzen dan moduan, Arratian holango kasuak badagoz eta gehiago be egon daitezke. Horregaitik, udalari, beste gauza batzuen artean, "udala, GAS faltsua eta esangura bereko antzeko terminoak erabilten daben prozesu judizialtan sartuta dagozan herritarak eta adin txikikoak babestera eta eskura dituen baliabideak eskaintzera" konpromidutako eskatzen deuse, baita honen inguruko manifestazio eta elkarretaratzeak bat egiteko be.

Arratiako Mobimentu Feministek azpimarratu gura dau, mozinoa onartzean, konpromiso batzuk hartu dirala udaletan, eta jarraipena egingo dauala udalak konpromisoak beteten dabezan ikusteko.

Iruke Costumeroren alabea etxeratze konzentrazioa

Hiru urte bete dira Iruke Costumero Igorrekoari alabea kendu eutsiela, eta agindu hori emon ebenen BFAko Haur Zerbitzuko

karguak eta langile bat epaiketaren zain dagoz Probintzia Auzitegiak delitu zantzuak ikusi ebalako horretan. Baina oindino epaiketea ez da egin eta ama-alabak jarraituten dabe bananduta. Hori dala eta, urri bigarrenaren 23an, 19:30ean, Igorreko kurutzan egingo dan elkarretaratzerako deia egin dabe. "Ahalik eta jente gehien parte hartzea komenidu da, adierazoteko badala garaia epaiketea egiteko eta alabea bere etxean egoteko" adierazo deuse BEGITURI Mobimentu Feministatik.

GASa, andra eta umeen eskubideak urratzeko tresna

Udaletan aurkeztutako mozinoan agertzen dan legez, "Guraso Alienazioa" eta "Guraso Interferentzia" zein "instrumentalizazio" terminoak erabilten dira andrai umeen kustodia kentzeako, eta aiten mesedetan joateko, askotan aita horreek tratatu txar edo sexu abusuen akusazinoan egon arren.

Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak (BJKN) GAS moduan ulertzen dan usteko sindrome hau erabilteari ixteko gomendioa egin deuse epailei askotan, teoria sasi-zientifikoa dalako. Kezka be adierazo dau termino honen erabilera "umeen aita abusatzailer edo tratatu txar emoleen bildur eta angustiaren errua, andren gainean ipinteko erabilten dalako". Holan, sistema judizialak gehienetan, fokua andrengan ipinten dau; bera epaitzen dau eta autoridadea kentzean deuse, bigarren biktimizazioa sortuz eta epaiketea traumatiko bihurtuz. Eta bere eskubideak eta umeenak urratuz.

Langabeziak gora egin dau martitik abuztura



Erredakzioa

Errota Fundazioak, Lanbidek irailan argitaratutako langabeziaren datuen arabera, Arratian abuztuan martian baino 120 langabetu gehiago dagozala jakinarazo dau; hau

da, langabeziak %1,4 egin dauala gora. Igoerea, Bizkaian eta Erkidegoan baino zerbaist apalagoa izan da. Izan be, Bizkaiko igoerea %1,6 eta Erkidegokoa %1,7 izan dira.

Arratiako langabetu gehienak andrazkoak dira, eta langabezia-tasa

%10,8tik %12,2ra igon da. Eda-deari jagokonean, gizonen artean, 45 urtetik gorakoak ditue langabezia-tasarik altuena; andrazkoetan, barriz, 25 eta 44 urte bitartekoetan dago. Kasu bietan, zerbitzu sektorekoak dira gehienak.

COVID-19aren ondorioz argitaratutako datuen arabera, Arratia mailan Areatza eta Igorre dira langabezia gehien igon dan herriak. Areatzan, zerbitzu sektoreko 25 eta 44 urte bitarteko gizonak izan dira batez be, eta Igorren, 45 urtetik gorakoak. Euretatik %28 industria sektorekoak eta %26 zerbitzu sektorekoak.

"Orokorrean, datuak txarrak dira, baina Bizkaikoak eta Erkidegokoak baino apur bat hobek. Aitagarria be bada, Bedian, langabeziak behera egin dauala: martian baino 3 persona gitxiago egozan Lanbiden izena emonda abuztuan" azaldu deuse BEGITURI Iratxe Goikoetxea Errota Fundazionoko koordinatzaileak.

DIMA

Udaletxeko balkoian ez da agertuko ikur politikoko edo sozialik

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 16ko Osoko Bilkuran, Andraizeak Udalean aurkeztutako mozinoa ez zan onartu EAJ-PNVk eta DAK (Dime Aukeratu) kontrako botoa emon ebalako. Herriko andra alkarteak hiru eskari egiten ebazan bertan: Dimako Udalak, Andraizeak eta taldeko kideak jasandako eraso matxistak salatzea; puntu morea udaletxeko balkoian barriro ipintea eta bertan egotea urteko 365 egunetan; eta Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) herrietako sarreretan, "Eraso matxistarik ez" kartelak ipinteko proposamena egitea.

Mozinoaren lehenengo eskariari baiezkoa emon eutsien udalean ordezkariak dituen hiru alderdiak; EH Bilduk, EAJ-PNVk eta DAK, hain zuzen be. Bigarren eskakizunari jagokonean, udaletxeko balkoian ez dala agertuko ikur politikoko edo sozialik adierazo eban udal gobernuak (EAJ-PNV eta DA). Hirugarren eskakizuna dala-eta, "Erasorik ez" inoen kartelak ipinteko proposamena egingo ebela izan zan erantzuna, matxista berbea kenduta.

Hori dala eta, hurrengo zapa-tuan, hilaren 19an, Andraizeak konzentrazinora deitu eban, puntu morea balkoian barriro ipinteko eskatutako eta 70 lagun inguru batu ziran.

Aurten, Andraizeak herriko plaza hainbat aldiz jantzi dau indarkeria

matxisteari txarrespena adierazoten deuseen puntu moreak. Maiatzean, taldekoak, auzuneetara be eroan ebezan puntu moreak.

Andra taldearen ekintzak

Indarkeria matxistaren kontrako eta gizon eta andren bardintasunaren aldeko burrukan, udal gobernuaren babes falteaz kejetan dira andra taldekoak. Ez bakarrik, "horretarako aurrekontua izanda" ez ditualako ekimenak abiatzen, baita, herriko andra taldearen ekimenak ez ditualako babesten be. Adibide moduan jaietan gertatutakoa ipinten dabe. COVID-19a dala-eta, jaiak egin ez ziran arren, Andraizeak herrian banandu ebazan "Zurumuru matxistarik ez" idatzita eukien zapi moreak. Herriarrak balkoietan ipini ebezan,

baina Udalak ez eban ipini "ez balkoian, ez harreran, ez beheko taulan, ez webgunean ez inon. Ez eban ekintza hori babestu". Eta udal gobernuaren babes faltea, indarkeria matxistaren kontrako burrukan eta bardintasunaren aldekoan atzerapausutat jotzen dabe andra taldekoak.

Udaleko komunikazio sarea

COVID-19a dala-eta ezarritako itxialdian, indarkeria matxista handitu eta andrentzako egoera arriskutsua zala jabetuta, Andraizeak, Udaleko komunikazio sarearen bitartez, astelehenero informazioa bialdu eban, zer egin indarkeria sufridu ezker, edo beste etxe baten gertatzen zala jakin ezker, zeintzuk ziran egin beharreko pausuak azaldutako.



OPORRETAKO ARGAZKI LEHIAKETEA

Igazko irabazleak, Deiene Gurtubaik, irabazi dau aurten be Oporretako Argazki Lehiaketea

Zeanuriko Deiene Gurtubai Zamezaren *Iraila Gorbeien* argazkiak eroan dau lehenengo saria. Aurten 67 argazki aurkeztu ditue irakurleak argazki lehiaketara, igaz 118 izan ziran. Ibone Barrenetxea eta Arantzazu Mata, "Zazu", argazkilariak osotu dabe epaimahaia. Irabazleak astegoiien bat landetxe baten izango dau saritzat.



San Vicente de la Barquera. Aizpea Etxebarria.



Mallorca. Libe Ormazabal Petralanda.



Es Vedra, Ibiza. Sara Gutierrez Egilior.



Urkixa baserrian ateratako argazkia. Ibon Iza Totorika.



Santa Cruz de Campezo. Deiene Gurtubai Zameza.



Mendiaren bakardadea. Hektor Rodriguez Arza.



Igiriñao. Itsaso Arrizabalaga.



Ibones azules, Panticosa. Aitor Arnaiz.



Ipuin Erotiko Lehiaketa

Oinarriak:

1. Lehiaketa honetan hamasei urteik gorako edozein personak hartu leike parte.
2. Lan guztiak argitaratu bakoak eta euskeraz idatziak izan beharko dira.
3. Lanak ipuin erotikoak izan behar dira eta DIN A4 orrietan makinaz tarte bikotean idatzita aurkeztu beharko dira. Lanen luzerera lau eta zortzi orrialde artekoa izan beharko da.
4. Lanean ez da egilearen datuik ipiniko, izenburua bakarrik. Egilearen datuak (Izen-abizenak, adina, telefonoa, helbidea eta lanaren izenburua) gutunazal zarratu baten sartuko dira eta gutunazal horren azalean lanean ipini dan izenburu bera ipini beharko da.
5. Lan orijinala, hiru kopia, eta egilearen datuak dituan gutunazala beste gutunazal handiago baten sartuta, honako helbide honetara bialdu beharko da: Zertu Kultur Elkartea, Herriko Plaza 24, 48142 Artea (Bizkaia). Posta elektronikoz bialdu ezkeru, gehitu artxibo bi, bat lanerako, bestea datuatarako, eta bialdu helbide honetara: begitu@topagunea.com.
6. Hiru sari emongo dira: lehena 600 eurokoa, bigarrena 400 eurokoa eta Arratiako onenari, 250 eurokoa.
7. Lanak bialduteko azken eguna 2020ko zementiaren 30a da.

HERRI KIROLAK

Diman jokatu ziran Bizkaiko Lasto Altxatze, Txinga Erute eta Lasto Botatze Txapelketak

Erredakzioa

Dimako frontoian herri kiroletako Bizkaiko hiru txapelketa jokatu ziran urri lehenengoaren 19an, eta Arratiako kirolaririk ez egoan arren, bete egin zan frontoia. Lasto Altxatzen Getxoko Beñat Amade izan zan txapelduna 23 jasoaldigaz; Txinga Eruten Nerea Gisasola 56 unte eginda eta Arratzuko Beñat Obieta Lasto Botatzen 5,40 metroko langa pasauta.

Bost kirolari neurtu ziran Lasto Botatzeko Bizkaiko txapelaren lehian. Obietaren atzetik, Ondarroako Mikel Agirrek egin eban bigarren, 4,80 metro gaindituta; hirugarren, Abadiñoko Eloy Sal-

terainek (4,60 m.) eta ostean, geratu ziran arratzuztar biak, Aitor Rodriguez (4,40) eta Xabier Rodriguez (4,20).

Txinga Erute Bizkaiko Txapelketan barriz, hiru izan ziran lehiatu ziran kirolariak. Alde handia egon zan txapelduna Nerea Gisasola eta beste bien artean. Izan be Arratzuko Naroa Arrietari hasi eta laster, 5. untean, jausi jakon txingea, eta Mallabiako Karnele Gisasolak, "Zelai III."ak, 24 unte egin ebazan.

Hiru izan ziran Lasto Altxatze Txapelketan neurtu ziran kirolariak, hirurak Getxokoak. Beñat Amadez gainera, Ousmane Dramek (19 jasoaldi) eta Joseba Legarretak (14 jasoaldi) jokatu eben txapelketa.

MENDIA

Eremuko hogeita sei tontorretara igongo da jentea

Erredakzioa

Hilaren 3an, Euskal Herriko 650 tontorretara igorea antolatu dau Sarek, Izan Bidea, preso eta igelarien etxeratzearen aldeko ibiltarien sarearen barruan. Euretako 26 Arratia, Ubide eta Zeberion dagoz eta Izan Bideaneko kamiseteta soinean, mendiotara igoteko deialdia egin dabe. Izena emotea zabalik dago <http://650tontor.sare.eus> helbidean.

12:00etarako egongo dira ibiltariak mendi tontorrean eta edozein modutan igon daiteke: oinez, galapan, bizikletan... Egindako kilometroak kuantifiketako Izan Bidean izeneko aplikazio bat dago, bideari ekin aurretik deskargau egin behar dana. Tontorrean, argazkiak atera eta sare sozialetan eskegiko dabez parte hartzaileak.

Dinamikan parte hartzeako igon daitezkan mendiak hurrengoak dira: Aldamin (Zeanuri), Altungana (Zeanuri), Apario (Igorre/Lemoa), Arralde (Ubide), Arrugaetako atxa (Zeberio), Artanda (Zeberio), Artaungan (Dima), Bargondiko atxa (Dima), Eneabe (Ubide), Errialtabaso (Dima), Gantzorrotz (Dima/Zomotza), Garaio (Dima), Gatzarrieta (Zeanuri), Gorbeia (Zeanuri), Ilunbe (Areatza), Lekanda (Zeanuri), Lemoatxa/Gantzabal (Lemoa), Leungana (Dima/Mañaria), Mandoia (Bedia/Zeberio), Murga (Areatza), Santiagozar (Bedia/Lemoa), Untzueta (Zeberio), Upo (Areatza), Urrekoatxa (Dima), Urtemondo (Dima) eta Zanburu (Zeanuri).

MENDIA

Pedro Mari Lejarza 99 kilometro 18 ordutan egiten saiatuko da

Erredakzioa

Gorbeia Suzien lasterketako ibilbidea hiru bider egitea da erronka. Urri bigarrenaren 3an, 00:00etan hasiko da eta 18 ordutan espero dau egitea 99 kilometroak. Erronka solidarioa, Aspanovas, Bizkaiko Minbizidun Haurren Gurasoen alkartearen alde izango da. Lagunduteko doralak 5 eurotan dagoz salgai.

COVID-19az gainera beste beharizan askori be urtenbidea

emon behar jakiela eretxita, hartu dau Lejarzak erronka hau; "gauza asko etorten jataz burura. Hemen dagoan jentea, ez dagoana... Erronka hau danontzat izango da, ez dakit amaituko ete dodan, baina ahalegina behintzat hor egongo da. Bizitza laburra da eta bizi behar da topera inori minik egin barik" dino mendizaleak.

Gorbeia Suzien, Zeanuriko Udala eta herriko beste alkarte eta komertzioen laguntzea izan dau erronka aurrera aterateko.



LEMOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET


 LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 31 03 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA

BANATZAILEA

INSTANT UPRIGHT
QUALITY & STRENGTH YOU CAN TRUST











PELOTEA

Finalerdietarako sailkatu da Ekhi Ziarrusta Donibane Garaziko trinkete txapelketan

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 28an, Endaiarrak klubeko Ekhi Ziarrusta dimoztarrak eta Inhar Ugarte getxotarrak 40-20 irabazi eutseen Alexis Inchauspe eta Jon Saint Paul-eri, Donibane Garaziko Ga-

rat pelotalekuan, 27. Ehiztarien Kopa, Denis Harriet Saria Txapelketako final laurdenetan. Finalerdietako partidua urri bigarrenaren 5ean jokatuko dabe Anchordoqui eta Palomes-en kontra. Irabazleak finala jokatuko dabe hilaren 26an.



MENDIA

Behin behintzat izeneko dokumentala egin dabe Gorbeia Suzienen gainean

Erredakzioa

Gorbeia Suzienen inguruan egindako *Behin behintzat* izeneko zazpi minutuko dokumentala aurkeztu eban antolakuntzeak sare sozialetan urri lehenengoaren 27an, mendi lasterketea egitekoan zan egun berean. "Lasterketea egitea ezinezkoa izan da aurten, baina urtero-urtero lasterketan parte hartzeri hurbiltzen diranai, boluntario beharretan dabizana eta Zeanuriko herritar guztiak es-

kerrak emon gura deutseguz" inoan Gorbeia Suzieneko antolakuntzeak sare sozialetan.

Ibilbidean entrenetako aukerea

Aste berean ibilbidean entrenau gura dabenentzat, beti be lur pribaduetan sartu barik, track-a ipini eben gorbeiasuzien.eus webgunean. "Hasikerako zatia bidez bide egiteko aukera daukazu track-a jarraituz. Webgunean sartu eta begiratu! Noz etorriko zara?" inoen.

AZKOREA

Federazioagaz desadostasunak dirala eta, azkolariak antolatuko ditue euren txapelketak



Erredakzioa

Lehen mailako azkolari guztiak eta bigarren mailako zortzik, urri lehenengoaren 23an agerraldia egin eben, Dimako Garena jatetxearen aurrean federazioagaz ez dagozala ados eta euren txapelketak eurek antolatuko dituela jakinarazoteko. Aitzol Atutxak eta Iker Vicentek hartu eben berbea gertatutakoa eta hartu dituen ebatzien barri emoteko.

Bagilaren 29an, federazioak txapelketak ez antolatzeko ebatzia hartu eban "txapelketak jokatzeke urte erdi" falta zanean. Hori dala-eta, azkolariak euren artean antolatzeko ebatzi eben. Federazioari txapelketak eurek antolatzeko eskaini eutsien eta "ezezko biribila" jaso eben. Hori dala-eta, txapelketak euren aldetik antolatzeko ebatzi eben. Urri

bigarrenaren 25ean jokatuko dabe kanporaketea Zestoan (Gipuzkoa) eta zemendiaren atzen astegoienean finala lruñean.

Federazioak barriz, abuztuaren 20an, ohar bat atera eban txapelketak jokatuko zizala esanez. Orduan, azkolariak hiru aukera ebezan: "biak aurrera atera, biak bertan behera itxi edo bietako bat aukeratu". Eta hartu daben ebatzia izan da federazioak antolatutako txapelketetara ez dirala joango eta euren txapelketak jokatuko dituela.

Azkolarien interesak defendituteko eta aurrerantzean txapelketak antolatuteko, alkarte bat sortzeko beharraz jaubetu dirala esan eban Aitzol Atutxak, txapelketak antolatzetik harago doazelako federazioagaz daukiezan desadostasunak.

PELOTEA

Amaia Alday ez da finalean izango

Erredakzioa

Amaia Alday eta Nora Mendizabalek 22-18 galdu eben lera Agirre eta Olatz Ruiz de Larramendiren kontra Bergarako Txapelketako finalerdiko partidua. Pronostikoak bete egin

ziran. Taldeburu izanda, Alday eta Mendizabal zuzenean sartu ziran finalerdietan, baina "aurkaria edozein izanda be" gatxa izango zala partidua uste eban dimoztarrak. Holan izan zan eta Aldayk eta Mendizabalek ez dabe finala jokatuko.

PELOTEA

Dimako Udagoieneko Eskupelota Txapelketea hilaren 2an hasiko da



Erredakzioa

Bertan 16 jokalarik hartuko dabe parte eta hiru jardunalditan jokatuko da; urri bigarrenaren 2, 9 eta 16an, hain zuzen be, arrastiko 18:30ean. Jardunaldi bakotxean hiru partidua jokatuko dira. Gizonezkoak partidu bi jokatuko dabez: Promesa mailakoak binakakoa eta Elite mailakoak buruz buru lau t'erdikoa. Andrak, lau t'erdikoan neurtuko dira.

Lehenengo saioan, Promesa mailako Xabier Beitia eta Ibai Cimadevilla, X. Rekalde eta Arbaizaren kontra neurtuko dira. Lau t'erdiko partiduetan, Arrate Bergara eta Naroa Agirre izango dira aurrez aurre lehenengotik, eta Gaizka Karregal eta Aitor Etxebarria gero.

Hurrengo saioan, urri bigarrenaren 9an, binakako partidua Eno Iglesias eta Etxebarria II.ak, Olaiola eta Beitiaren kontra jokatuko dabe. Nora Mendizabalek, Ainhoa Ruiz de Infante izango dau aurkari. Riol eta Larrinagaren arteko norgehiagokeak emongo deutso amaiera egun horretako jaialdiari.

Gure ikastetxeak
Euskalduna kalidazkoa herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezuuntza
Lehen Hezuuntza
Darrigorrezko Dagarren Hezuuntza
Datxilergoan
Hezuuntza Zuziloan
2 urtatu 18ra

ERAKUSKETEAK

Ertibil erakusketa
ibiltaria Igorren

Erredakzioa

Hamazortzi artistaren lanak egongo dira ikusgai Igorren urri bigarrenaren 14tik zehar 8ra, Ertibil erakusketa ibiltarian. Bilboko Rekalde Aretoan dago, eta Igorre eta gero, Basaurin eta Ermuan egongo da.

Ertibil proiektua Bizkaiko artistai lagunduteko Foru Aldundiaren proiektu finkatua da; aurtengoa 38. edizioa izan da eta. Lehiaketara Helena Goñik irabazi dau *Dos retratos de Gabe en el tren* lanagaz. Bigarrena, Maite Leyunen *Kitty & Co* lana izan da eta hirugarrena, Daniel Llariaren *Be seen be safe*. Guztira 113 artistak hartu dabe parte, estilo artistiko desbardinatuko 160 lan aurkeztuz.

Erakusketan

Erakusketan honako artista honeek



hartzean dabe parte: Helena Goñik, Maite Leyunek, Daniel Llariak, Asier Aguayok, Raquel Asensik, Nora Aurkoetxeak, Detrito la Muelak, Guido di Marziok, Jone Elorriagak, Nerea Garrrok, Ibon Landak, Joaquin Pedro Gómezek, Ibai Madariagak, Miel Oyarzabalek, Amaia Molinetek, Ruben Pinok, Nahia Ruizek, Ander Sagastiberrik, Alberto Eguluzek eta Ane Seijasek.



BERTSOLARITZEA

Datorren urtera atzeratu
dabe Bizkaiko Bertsolari
Txapelketea

Erredakzioa

Laugarren egin eban Iñaki Iturriotz Igorrekoak Udabarria Bertsotan sailkapen fasean eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketan izango da. Ez ordea, Illart Gumuzio; hemeretzigarren egin eban eta multzo bakotzeko 13 sailkatzen dira. Bizkaiko Txapelketea oingo hilean hasteko bazan be, datorren urtera atzeratzea ebatzi dau Bertsotzaleen Elkarteak.

Urri lehenengoaren 18an jokatu eban Iñaki Iturriotzek Markina-Xemeinen, sailkapen saioa. Bigarren egin eban Ibai Amillategiren atzetik, 181,5 puntu lortuz. Gaiak

Zihara Enbeitak emon ebazan.

Illart Gumuzio berriz, bosgarren egin eban Zallan, urri lehenengoaren 24an, 154 puntuko emaitzagaz. Gorra Pagonabarrak lortu eban zuzeneko pasea, 189,5 puntugaz. Igor Menika Arantzazukoa ibili zan saioa aurkezten eta gaiak emoten.



ONDAREA

Hezkuntzaren inguruan
egingo dira Ondarearen
Europako Jardunaldiak

Erredakzioa

Kontaiguzo ondarea! Ondarea eta Hezkuntza leloa daukie aurtengo Ondarearen Europako Jardunaldiak. Katalogoan 200 ekitaldi inguru jasoten dira. Gurean, Areatzak, Dimak, Igorrek, Zeanurik eta Zerberioak daukiez ekintzak programata, horreetatik hiru lehenengo hamabostaldian.

Zeanurik bete-bete helduko deutso aurtengo gaiari eta rolen araberako hezkuntzaren gaineko berbaldia egingo dau Felix Mugurutzak hilaren 3an, 18:30ean, Kultur Etxean. Berak kontauko dau, hezkuntzaren kontzeptua irakaskuntzarena baino askoz zabalagoa dala eta etxetik hasita, neska-mutilen rol diskriminatzaileen araberako banaketea egiten zala. Lehen jaunartzetik aurrera, umeak jolasak alde batera itxi eta sexu bakotxari egokozan lanak eta zereginak egiten ebezan. Aspaldiko irudiak erabiliko ditu berbaldian.

Areatzako Parketxeak, Gorbeia Parke Naturala ezetuteko bisitaldi gidatua eta ibilbide didaktikoa prestatu ditu. Parquetxean azalpenak jaso ondoren, ibilbidea, Saldropoko hezegunetik izango da. Urri bigarrenaren 10erako dago programata. Hamar personako taldeak egingo dira, osasun neurriak betetako. Izena Areatzako Parketxean emon behar da.

Egun berean, Gorbeia Turismo Jomugak antolatuta, Zeberion tenpluak eta etxeak deskubriduteko bisita gidatua egongo da. Ermitabarri, aginte politikoaren, sozialaren eta ekonomikoaren gune bilakatu zan Behe Erdi Arotik eta Aro Moderno osoan zehar, fedea eta tradizioa oinarri ebezan heziketa sisteman oinarrituta. Ibilaldi laburra da, kilometro bat ingurukoa.

Dima eta Igorre

Bigarren hamabostaldian, Dima eta Igorren dagoz ekintzak programata. Igorren berbaldia egongo da. Angel Larreak Igorre eta Arratiako hezkuntza ondarea azalduko dau hilaren 21ean, 19:00etan, Kultur Etxean. Ume eta gazteen hezkuntzari eta lanbide-heziketari lotutako udal eskolak, Kontseilu Probintzialak sortutako auzo-eskolak, eskola erlijioso eta monjeenak, ikastetxe pribatuak eta Arratiako aitzindari ezagunetako batzuk (maisua-maistrak) izango ditu berbagai. Egile arratiar batek frankismoaren amaieran, ikastolen mobimentu barriaren testuinguruan, idatzi ebazan euskerazko ikasmaterialek batzuk be erakutsi eta azalduko ditu.

Antzasti-Euskaldunon Etxea eta Oba auzoko eskola bisitauko dabe hilaren 31n, bisitaldi honetan parte hartzean dabenak. Hezkuntza mundu desbardin bi erakutsiko dauz jarduerak: etxeko sozializazioa eta eskolako, hain zuzen be.

IKASTAROAK

2020-2021eko ikastaroak

Erredakzioa

Protokolo barriakaz egingo deusie 2020-2021 ikasturteko udal ikastaroak hilean. Aurreko urteetan baino talde txikiagoak izango dira baina herritarrai, kultura eta kirola prezio egokian eskaintzearen aldeko apustua egin gura dabe udalak, osasuna osoko ondoizate moduan ulertuta.

Arantzazu

Hilaren 2a da izena emoteko azken eguna udaletxean. Ikastaroak *Mantenimentuko gimnasia*, *Areto dantzak*, *Entrenamentu funtzionala*, *Zumba*, *Spinning*, *Umeentzako multikirola*, *Robotika* eta *Yoga* dira. Kulturgunean, frontoian eta gimnasioan egingo dira. Dana dala, aurten COVID-19a dala eta, spinninga bakarrik egingo da gimnasioan. Beste urte batzuetan gimnasioan egin diranak, frontoian egingo dira, "bere zabalereagaitik, segurtasun

neurriak mantenidu ahal izateko lekuri aproposena dalako".

Artea

Hilaren 6ra arte emon daiteke izena udaletxean, 2020-2021 udal ikastaroak egiteko; 13an hasiko dira, Kultur Etxean, Kiroldegian edo eskolako gimnasioan, aforo mugatuagaz. Artea Udalen eskaintza hauxe da: *Eskulanak*, *Arte aplikatuak*, *3. adineko gimnasia*, *Zumba*, *Pilates*, *Yoga*, *Euskal dantzak* eta *Dantza modernoak umeentzat*.

COVID-19aren itxierearen ostean, gimnasioa barriro zabalduko dala jakinarazoz dau Udalak. Aforoa telefonoz kontrolatuko eta bertara sartzeako sistema barria ipiniko da martxan. 2020an urte osoan bazkide izandakoak, 2021eko kuota ez dabe ordaindu beharko, debalde izango dabe.

Dima

Izena emoteko azken eguna urri

bigarrenaren 2a da eta ikastaroak hilaren 5eko astean hasiko dira. *Pilates*, *Yoga*, *Eskulanak*, *Entrenamentu funtzionala*, *3. adinean ariketa fisikoa* eta *Zumba* dira. Elexalde geletan izango dira. Ikasturte honetan, hilean ordaindu beharko da. Prezioak, hileko 20 eta 25 euro bitartean dagoz Dima erroldatuentzat eta 25 eta 30 bitartean herrian erroldatuta ez dagozanentzat.

Zeanuri

Izen emotea zabalik dago Zeanurin. *Pilates*, *Zumba*, *Entrenamentu funtzionala*, *Txikung*, *Gimnasia*, *Pintura umeentzat*, *Pintura* eta *Umeen dantza* ikastaroetan emon daiteke izena. *Pilates*, *Zumba*, *Entrenamentu funtzionala* eta *Gimnasia* zehar 2tik aurrera hasiko dirala emon dau jakitera Udalak. Izena udal webgunean, 94 673 91 46 telefonoan edo harrera@zeanuri.eus helbidean emon daiteke.

Adinekoen gimnasia, *Adimen susperketa-Estimulazio kognitiboa*, *Adinekoentzako eskulanak* eta *Joste* ikastaroak "biziten gabizaren egoeraren eboluzioa hobetu arte" ez dira hasiko.

rri izanda Lemoan eta Areatzan hainbat talde biltzean dira maiztasun zabalagaz eta jarduerak egiteko. Euskaldunak zein euskeraz ikasten dabizanak alkartzeko taldeak sortzean dira, 5 lagun ingurukoak. Hainbat ekintza egin bitartean euskeraz berba egitea da katea. Maiztasuna eta ordutegia taldeko partaideen esku ixten da" dinoe AEKtik.

Izena udaletxeetan edo AEKn emon daiteke arratia_berba@aei.eus helbidean edo 662 199 033 telefonoan.

EUSKEREAK

Arratiako Berbalagunak martxan

Erredakzioa

Ikasturte barriagaz martxan da barriro Berbalagun, euskera praktikau, hobetu, mantenidu edo beste barik, berba egiteko AEKren ekimena. Aurten, online be izan daiteke.

Aurreko urteetako taldeez gai-

nera, barriak be sortu daitekeza la dinoe AEKtik, aukerea gero eta ugariagoa da eta. Berbalagunak, mintzataldeak, familia ekintzak, txangoak, tailerrak, mintzodromoak, lehiaketak, berbaldiak, mendi urtekerak eta astegoinpasak egiten dabez alkarregaz.

"Euskerea praktiketea oina-

ZINEA

Limbo Irune Gurtubai produktorearen pelikulea Donostiako Zinemaldian

Cannes eta Torontoko zinemaldietan estrenau eta gero, Donostiako Zinemaldian estrenau zan Ben Sharrock-ek zuzendutako eta Irune Gurtubai igorretarrak ekoiztutako *Limbo* pelikulea.

Erredakzioa

Sei emonaldi egon ziran urri lehenengoaren 19 eta 22a bitartean, eta hiru aretotatik pasau zan, goizeko zein arrastiko ordutegietan. Kritika onak izan ebazan pelikuleak Cannes-en eta Toronton eta Donostiako Zinemaldian sarrera guztiak saldu ziran saio guztietan. Kritikak be oso onak izan zirala dino Gurtubaik. "Oso pozik gagoz. Cannes-en eta Toronton egon zan pelikulea, baina gu ezin izan ginan joan, COVID-19a dala eta. Donostiako Zinemaldian fisikoki egon ahal izan gara eta asko disfrutau dogu. Oin pelikuleak festibaletako ibilbidea segiduko dau, Zurich, Londres, Cairo..." azaldu deutso BEGURI Gurtubaik. Oindino fetxarrik ez dagoan arren, seguruenik, 2021eko udabarrian ikusi ahal izango da zine aretoetan.

Sharrock eta Gurtubairen aurreko pelikulea be, Arratian grabautako *Pikadero*, hain zuzen, Donostiako Zinemaldian estrenau zan 2015ean.

Errefujiaduen bizipenak

Limbo, Eskozia iparmendebaldeko Uist irletan dago grabauta eta igazko udagoieneko errefujiaduen krisian girotuta. Asilo eskaerea

egin ostean, irla batera bialdutako errefujiaduak dira film honetako protagonistak. "Satira interkultural bat da, errefujiaduen esperantzea eta zailtasunak fintasunez josten dituana". Fim honen protagonistea, Omar, Siriako musikari gazte bat da. Bere familiagandik urrun, Eskoziako irla txiki baten dago itxaroan, bere asilo eskaerearen erantzunaren zain. Besoko eskaioleak ez deutso bere oud-a jotzen ixten, eta irlako paraje izugarrietatik bueltaka pasetan dau denporea, iragan zail eta etorkizun ezezagun baten aurrean erantzunak bilatu guran.

Aktore lanak, Amir El-Masry-k, Vikash Bhai-k, Ola Orebiyi-k, Kwabena Ansah-ek eta Side Babet Knudsen-ek egiten ditue.



Irune Gurtubai eta Ben Sharrock.

ONDAREA

Arimen gaba ospatuteko deia egin dau Euskaltzaleen Topaguneak

Erredakzioa

Euskaltzaleen Topaguneak urri bigarrenaren 31ren bueltan ospatuten zan ohitura zaharra berreskuratu eta jaia berrasmatzeko beharrean dabil. "Igazko sortutako baliabideai barriak gehituko deusaguz, 2020an be Gau Baltza antolatu gura dabenezat". Besteak beste, online ikastaro bat antolatu dau Topaguneak UEUgaz eta Ekoguneagaz alkarlanean eta ospakizunaren inguruko dokumental laburra sortu dabe, danon eskura jarriko dana www.gaubeltza.eus webgunean. "Koronabirusak isolatuta izan gaituan urte berezi honetan be Gau baltza antolatuteko deia" egiten deutse herrietako alkarlanean Topaguneak.

Jaiak euskeratik eta euskeraz antolatu eta bizitearen garrantziaz jaubetuta, igaz hasi zan Euskaltzaleen Topagunea ohitura zahar hau zabalduko akuilu lana egiten, eta igaz, aurreko urteetan egiten zan herrien kopurua bikoztu egin zala dino. Lekuan lekuko ohiturak kontuan hartuta, herri bakoitzean desbardina izango da jaia. Hainbat ekintza antolatu daitezke: eske-errondea, mozo-

rro eta makillaje tailerra, kalabaza tailerra, gaztainerre, transmisino saioak, bildurrezko ibilbidea, bildurrak erretea edo gaiari lotutako kultur ekintzak, berbarako.

Ohitura zaharra gaurkotuta

Jaime Altuna eta Josu Ozaita antropologoek *Itzalitako kalabazaren berpiztea* lanean oinarrituta, Euskaltzaleen Topaguneak ohitura honen jatorria aspaldikoa dala dino. Izan be, "udagoienetik negurako egunak gero eta ilunagoak dira eta erritu desbardinak izan dira Europa osoan, baita Euskal Herrian be. Eta gurean be badira kontakizunak, kalabazak edo arbiak hustu, arpegi itxurea emon, kandela txiki bat sartu eta bide bazterretan argizatuta ipinten ziran, bizilagunak bildurtu eta hildakoen arimari bidea erakusteko".

Atzen urteotan, euskera alkarlanean, guraso taldeak, liburutegiak edo-eta beste alkarlanean antolatu egin dabe jaia gaurkotuta.



DUNBA

Kurso barria ohitura barriak

Arratia Institututuko ikasleak

Pasau dan kurso amaiera berezia izan zan. Martiaren 12an etxera bialdu euskuenean, irakasle ordezkoak agurtu egin genduzan, badaezpada be. Ez genkian barriro bueltauko ginan ala ez. Nok ekian pandemia bat bizi izan beharko genduala? Gauza barria zan gu lako gazteontzat. Imajinatu ezina.

Han hasi genduzan online klaseak. Batzuk gogokoago, baia gehienok institutura bueltetea gura genduan. Bueltatu gara eta zelako bueltea!

Oin betiko karpeta, koadernu eta boligrafoai maskarak eta hidrogelak gehitu behar deutseguz. Eta klasekideren batek materiala etxean ahaztu ezker, ezin lagunak ezer itxi.

Protokolo barria daukagu. Oin 15 minutu lehenago eta tenperatura etxetik hartuta etorri behar

gara (ahaztuten jakonik be bada). Eta gelak orduro aireztatu behar doguz, komeriak hotzak hasten diranean!

Hidrogel botea hutsitu eta hutsitu gabiz. Ondo egongo zan klasean dosifikagailua egotea, etxetik ekarri beharrean. Eta eskatuten hasita usain hobeagokoa.

6 orduz jarraian maskarak erabiltea ez da eroso, bero handia emoten dau eta ikastea nekagarri bihurtuten dau. Ez hori bakarrik, irakaslea entzutea kostau egiten jaku.

Atsedendian, kalera atera eta hamaiketako jaten dogu, batzuentzako atxakia ona maskara barik luze egoteko.

Izan doguzan aldaketa guztietatik gaxena beteteko distantzia fisikoa mantentzearena da. 500 ikasleliko gora gara. Institutuan gela eta leku faltea lehenago be baegoan, ba oin zer esanik ez! Gelan bakarka ezarri behar gara



Arratia Institututuko ikasleak.

eta ezin dogu talde lanik egin. Baina, arlo batzutarako ikasgelaz aldatu behar izaten gara eta gure mahaiak beste ikasle batzuek

erabili. Eta guzti hau bitartean desinfektatu barik.

Dana ondo badao klasera etorren segiduko dogu, baina gauzea

okertuten hasten bada egun batzuetan etxetik egin beharko dogu lan: institutua eta etxea txandakatuz. Azkenengo aukera moduan, martiako egoerara bueltetea egongo litzateke eta etxetik behar egin.

Etxetik edo institututik egoera honeri bueltea emongo deusaguz eta gazteak garan heinean aurrera aterako gara!



AGENDA

**URRI BI. 1
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

ARRATIA

Euskal Herriko 650 tontorretara igoera. Urri bigarrenaren 3rako Sarek antolatutako Izan Bidea ekimenean izen emotea zabalik <http://650tontor.sare.eus> helbidean.

Norbanakoak Euskaraldian izena emoteko epea zabalik. www.euskaraldia.eus helbidean.



Berbalagun proiektuan parte hartzeako, informazio gehiago eskatzeko zein izena emoteko deitu 662 199 033 telefonora edo idatzi arratia_berba@aek.eus helbidera.



AREATZA

19:00etan, frontoiaren erabilera zehaztu eta txandea hartzeako batzarra. Udaletxean.

17:00etatik 19:00etara, hilaren 2ra arte Ludotekan izena emoteko epea. Ludotekan.

ARTEA

Hilaren 6ra arte, 2020-2021 udal ikastaroetan izena emoteko epea zabalik. Ikastaroak: *Eskulanak, Arte aplikatuak, 3. adineko gimnasia, Zumba, Pilates, Yoga, Euskal dantzak eta Dantza modernoak umeentzat*. Udaletxean.

BEDIA

16:30etik 19:30era, zemendiaren 13ra arte, izena emoteko epea zabalik Bediako Euskaraldian parte hartzeako. Liburutegian.

DIMA

Udal ikastaroetan izena emoteko azken eguna. Ikastaroak: *Pilates, Yoga, Eskulanak, Entrenamendu funtzionala, 3. adinean ariketa fisikoa eta Zumba*.

19:00etan, Ahoztar Zelaietaren Zaldibar. Zona cero liburuaren aurkezpena Abaroa aretoan.

IGORRE

Igorreko Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu ahal izateko, aurretik txandea eskatuta 94 685 25 30 telefonora deituta edo [\[gmail.com\]\(mailto:gmail.com\) helbide elektronikora idatzita. Astelehen, martitzen, eguen eta barikuetan 10:00etatik 14:00etara, eguaztenetan 16:00etatik 20:00etara.](mailto:liburu.igorre@</p>
</div>
<div data-bbox=)

LEMOA

09:30ean, parke osasungarria. Nagusientzako ariketa fisikoa sustatzeko tailerrak Ibaizabal parkean.

Liburutegia zabalik arrastiko ordutegian, astelehenetik barikura 16:30etik 19:30era Kotxepin Kulturgunean. Liburuak maileguan hartu eta itzultzeko baino ezin da erabili liburutegia.

LEKUALDAKETA
Liburutegi berria KOTXEPIN KULTURGUNEAN estreintutako daga. Elizondo 22an.

ORDUTEGIA
Astelehenetik barikura / 16:30 - 19:30

LIBURUEN MAILEGU ETA ITZULTZEA
Liburutegia liburuak maileguan hartu eta itzultzeko balio ez du erabiltzeko.

SEGURTASUN NEURRIAK
Maskara erabili eta sartzearekin estekatu gorbite.

MAILEGU ZERBITZUA
Milega zerbitzu emateko liburutegi zerbitzuarik hurremanetan jarraituko eta zure ekuara egin. 94 621 20 64 / liburutegia@lema.net

Abendura arte, Egunean behin lehiaketan parte hartzeako aukerea. Deskargatu Egunean behin aplikazioa; sartu Lemoako herria taldean. Kalko: 204F9E. Esteka: <https://eguneanbehin.app.link/1KH1d9SW5>. Denporaldia amaitutakoan saria egongo da lehenengo hirurentzat. Parte hartzeako Lemoan erroldatuta egon behar da.

ZEANURI

Hilaren 9ra arte, udal ikastaroetan izena emoteko epea. Ikastaroak: *Pilates, Zumba, Entrenamendu funtzionala, Txikung, Gimnasia, Pintura umeentzat, Pintura eta Umeen dantza*. Izena udal webgunean, 94 673 91 46 telefonon edo harrera@zeanuri.eus helbidean emon daiteke.

ZEBERIO

Hilaren 31ra arte, herriko inguru eta ekintzak gaitzat daukiezan argazkiak bialdu daitezke udala.zeberio@bizkaia.org helbidera 2021eko egutegia osotutako Argazki Lehiaketan parte hartzeako. Argazkiak horizontalak izan behar dira baina ezin dira panoramikoak izan.

**URRI BI. 2
ARANTZAZU**

2020-2021 udal ikastaroetan izena emoteko azken eguna. Ikastaroak: *Mantenimenduko gimnasia, Areto dantzak, Entrenamendu funtzionala, Zumba, Spinning, Umeentzako multikirola, Robotika eta Yoga*.

DIMA

18:30ean, Dimako Udagoieneko Eskupelota Txapelketako 1. finalaurrekoak.

**URRI BI. 3
ARRATIA**

Euskal Herriko 650 tontorretara igoera. 12:00etan Arratiako tontorretan. Sarek antolatutako Izan Bidea ekimena.

BEDIA

Mugiment Programea: kirol orientazio

zerbitzua 16 urtetik gorakoentzat. Hitzordua hartu 636 325 578 telefonon edo mugimentbedia@bedia.biz helbidean.

09:30etik 20:00etara, Vivanco Bodegara urtekerea.

ZEANURI

11:00etatik 14:00etara, "Herri bat, merkatu bat" bertako produktuen azokea.

18:30ean, *Rolen arabera hezkuntza* berbaldia Felix Mugurutzaren eskutik Kultur Etxean. Ondarearen Europako Jardunaldiak.

**URRI BI. 7
LEMOA**

09:30ean, 3. adinekoentzako ibilaldi gidatuak. Gudarien parkean.

**URRI BI. 8
LEMOA**

09:30ean, parke osasungarria. Nagusientzako ariketa fisikoa sustatzeko tailerrak Ibaizabal parkean.

**URRI BI. 9
DIMA**

18:30ean, Dimako Udagoieneko Eskupelota Txapelketako 2. finalaurrekoak.

**URRI BI. 10
AREATZA**

10:30ean, Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, *Gure ingurune naturala ezagut dezagun, hori maitatu eta zaintzeko* bisitaldi gidatua eta ibilbide didaktikoa. Izen emotea 94 673 92 79 edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean. Ondarearen Europako Jardunaldiak. Areatzako Parketxean.

ZEBERIO

10:30ean, Gorbeia Turismo Jomugak antolatuta, *Zeberioko altxorrak: Ermitabarri* ibilaldia. Ondarearen Europako Jardunaldiak.

**URRI BI. 12
ARANTZAU**

Hilaren 16ra arte, urri bigarrenaren 17an izango dan Mugarri Biran izen emotea Montero tabernan.

**URRI BI. 13
ARTEA**

Udal ikastaroak hasten dira.

**URRI BI. 14
IGORRE**

Zemendiaren 8ra arte, Ertibil erakusketa ibiltaria Kultur Etxean.

LEMOA

09:30ean, 3. adinekoentzako ibilaldi gidatuak. Gudarien parkean.

**URRI BI. 15
AREATZA**

19:30ean, garagardao dastaketea; 6 garagardo mota eta mokadutxo. 20 euro personako (plaza mugatuak). Informazioa eta erreserbak Areatzako Bainueteko kafetegian edo 637 757 335 zenbakian. Beerllarok antolatuta.



DIMA

Landa Inguruko Emakumeen Nazioarteko Eguna. *Zuhaitza* dokumentala eta mahai-inguru Iratxe Martinez eta herriko andra nekazariakaz.

LEMOA

09:30ean, Parke osasungarria. Nagusientzako ariketa fisikoa sustatzeko tailerrak Ibaizabal parkean.

STIHL
HAZTEKO INDARRA

UDAGOIENKO ESKAINTZAK 2020
STIHL-EN KONPROMISOA:
ALKARREGAZ ATZO, GAUR
ETA BETI

GARAJE FELIPE
www.garajefelipe.stihl-tienda.es

- Garbe, 2 - Igorre
946 736 339
garajefelipe@euskalnet.net
- Montorra auzoa, Behea 1º - Amorebieta
946 309 039
garajefelipe2@telefonica.net

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK ETXEA ALOKAIKUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazio onean. Hilean 700 euroren truke. Kontaktatu zenbakia: 666 125 725.

PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzelea eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzialean. Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizaua egingo deusut heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating*-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: narao_esparza@hotmail.com (lehen hitzordua doban).

KLASEAK EMOTEN DIRA

Institutuko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, marrazketa tekniko, teknologia... klaseak eskaintzen dira. Informazio gehiagorako deitu 608 381 984 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 BEGITUKO kamiseta bana.

Ganzabal Mendi Taldea (Lemoa)
Nagore Bernaola (Dima)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean moda
sema
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • sema@topagunea.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERBITZUA
609421222
IGORRE

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

begitu

Dia %
PEDRO AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

KIRRU ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TEL. 94 631 92 00

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
-Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Bixarra egin eta bukunduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE



BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2020an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Hori egiteagaitik **Garena** jatebixean lagun birezko degustazino menua zozketatuko dogu abenduan.



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarteak Herriko plaza 24. 48142 Artea.



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.



Egin zaitez Begitu-lagun 15 euroren truke **Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz!**

GURE HELBURUA EZ JAKELA EZER FALTA ...ETA BATEZ ERE MAITASUNEZ, MAITASUN OSOZ



JANDONIZ

nagusientzako etxea
residencia para mayores

EGONALDI IRAUNKORRAK ETA ALDI BATERAKOAK

Jandoniz, 2 · 48390 BEDIA · tel. 94 631 31 30
www.residenciaparamayoresjandoniz.es

ARRETA OSOA:

- Lagunduta
- Dementziak
- Fisioterapia- errehabilitazioa
- Zainketa aringarriak
- Post-ebakuntza errekupeazioa

TALDEA OSATZEN DU:

- Medikua
- Erizaintza
- Fisioterapeuta
- Psikologoa
- Lanbide-terapeuta
- Animatzaile soziokulturala

GAINERA DAUKAGU:

- Ile-apaindegia
- Podologia
- Masajista